



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Idazteko ideiarik gabe geratzen naizenean aterako dut autoko karneta”

Harkaitz Cano | Orotariko idazlea

Neguko zirkuan aurkitu dugu belarraren ahoa...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Ez al zinen zure bizitzako nobela idazteko ezkutu behar?

Hemen egonda ezinezkoa da. Zein den nire tragedia? Idatzi beharko nukeena idatzi beharrean, idatzi beharko ez nukeena idazten dudala.

Politikaria dirudizu, beti besteentzat esker txarreko lanean...

Kazetari eta gidoilariak beti euren bigarren traje onenarekin egin behar dute lan, eta askotan zailagoa da hori igande-jantziz aritzea baino.

Idazleak, ordea, beti ikusten zaituztet igande-jantziz!

Nik ez dut hori pose bezala bizi, jolas bezala baizik. Agertu behar dugunez, egin dezagun zerbait ludikoa, jolastu gaitezen.

Zuk argitaletxeekin egiten duzu jolas, beti bate-tik bestera, ez zara mertzenarioa izango, ala?

Fideltasuna beste eremu batzuetarako gorde-tzen dut. Editorea kontra-botere bezala erabiltzen saiatzen naiz. Ezagutzen ditudanetatik gutxien gustatuko zaionari eskainiko diot liburua, badakidalako haren eskuetatik pasata liburua hobe izango dela.

Esadazu kritikak aurrera egiteko balio dizula...

Idazle batek kritika aurreikusi behar du. Liburua ondo pentsatu badu, bi eratako akatsak topatuko ditu: konpondu daitezkeenak eta irtenbiderik ez daukatenak. Lehenak soluzio-natuko zituen, eta besteak...

Geroz eta hobeki geratzen ari zaizu...

Anbizio eta harrotasun ikaragarriak behar dira idazteko orduan, baina hortik aurrera umiltasuna. Liburu bat amaitzearen pozarekin batera beti pentsatu izan dut nire buruan zegoen liburua hobe zela.

Niri irakurtzen dudanak axola dit.

Kantari frustratuentzat karaokea asmatu zen, baina ez dago idazle frustratuentzako karaoke-rik. Era berean geroz eta jende gehiagok idazten du, denak gara egile, denak sortzaile. Demokratizazio horrek urduritu jartzen du idazlea. Autorearen figura krisian dago.

Ez al zen Euskadi Saria krisian zegoena?

Horrelako kritika batek sari hobe merezi du. Labankadaka aritzea ondo dago baina igo dezagun altxorren munttoa.

Zer esan nahi duzu, gida-baimena erosteko ere ez zizula eman?

Hasieran nagikeria hutsa zen, orain erresistentzia. Ez dut ezer autoen aurka, baina ez dira ezinbestekoak. Idazteko ideiarik gabe geratzen naizenean aterako dut karneta. Ziur nago, autoa edukita bestela idatziko nukeela.

Baina, baina... Zer bitxo klase zara zu?!

Euskal Herrian garraio publikoa erabiltzea XIX. mendean bizitzeko modu bat da. Toki batzuetara joateko diligentzien tempoan sartzen zara. Hori atzerapena edo bizitza kalitate den... ■